

 DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA ZERBITZU OROKORRAK	Espedientea: Ebazpena zuzenean
	Espediente kodea: 2026EBAZ0023
	Gaia: ETGP programa kudeatzeko teknikarien hautaketa prozesuarekin jarraitzeko hautaketa prozesuko epaimahaia eratu behar da
	Arduraduna: Idazkari kontuhartzailea
	Titularra: DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA
	Ordezkarria:

LEHENDAKARITZAREN
EBAZPENA

Dorleta Elkorobarrutia Pagoaga, Debagoiena Mankomunitateko lehendakari naizenak, Toki-Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 atalean xedatutakoaren arabera;

IKUSIRIK

2026ko ekainaren 18an Debagoieneko Mankomunitateko Juntak erabaki zuela, Enplegu eta Tokiko Garapen Plana programa kudeatzeko teknikariaren hautaketa prozesua abian jartzea. Hautaketa prozesuaren eskaintza, 162026006790 zenbakiduna, Euskal Enplegu Zerbitzuak (Lanbide) argitara eman zuela.

Prozesuarekin jarraitze aldera, hautaketa prozesuan epaimahaia eratu behar da.

Hau guztia kontutan harturik, honakoa

ERABAKI DUT:

LEHENA: Enplegu eta Tokiko Garapen Plana programa kudeatzeko teknikariaren hautaketa prozesuan epaimahaikide hauek izendatzea:

Lehendakaria: Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave (Debagoieneko Mankomunitateko idazkari kontu-hartzailea.

Bokalak:

- Koldo Azkoitia Zubizarreta (Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziako arduraduna)
- Maria Jesús Unamuno Vega (Bergarako Udaleko Enplegu Teknikaria)

Idazkaria: Itziar Galdos (Zerbitzu Orokoretako Administraria)

BIGARRENA: Erabakia www.debagoiena.eus en argitaratzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri eman hurrengo Gobernu Juntan.

Honela jasota gera dadin eta dagokion ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut idazkari kontu-hartzailearen oniritziarekin.

Lehendakaria
Dorleta Elkorobarrutia Pagoaga

Idazkari Kontu-hartzailea
Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2026EBAZ0023-EbazpenZuzena/DecretoDirecto (DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA)